

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hiru urteko 5.952 haur baino gehiago eskolan hasiko dira ikasturte honetan

60.165 ikasle izango dira guztira irakaskuntza publikoko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, eta 36.607 itunpekoan

Astelehena, 2016.eko irailak 5

Hiru urteko 5.952 ikasle, iaz baino 654 gutxiago, sartuko dira Nafarroako hezkuntza-sistemako aurtengo ikasturtean, irailean egingo diren matrikulen datuak jasotzeko zain. Hezkuntzako kontseilari Jose Luis Mendozak, Hezkuntzako eta Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusi

Roberto Perez Elorzarekin eta Nekane Orozekin batera, 2016/17 ikasturteko datuak aurkeztu ditu; irailaren 7an hasiko da aurten Haur eta Lehen Hezkuntza, eta irailaren 9an Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa.

Hiru urteko ikasleen atsedenaldea 2013an izandako jaiotze-tasaren beherakadarekin bat dator. Paradoxikoki, aipatu du kontseilariak, Lehen Hezkuntzan 41.301 ikasle izango dira, iaz baino seiehun bat gehiago.


Matrikulatutako kopuru guztitik, 60.165 ikasle ikastetxe publikoetara joango dira, haietatik % 67,8 A eta G eredueta, eta % 32,2 D eredura. Itunpeko irakaskuntzan 36.607 ikasle izango dira, eta haietatik % 82,7 A eta G eredueta ikasiko dute, eta % 17,3k D eredueta.

Haur Hezkuntzan, irakaskuntza publikoan 12.017 ikasle izango dira (% 65,6 A eta G eredueta, eta % 34,4 D eredueta) eta 7.237 itunpekoan (% 80,7 A eta G eredueta eta % 19,3, D eredueta).

Haur Hezkuntzari dagokionez, 26.123 ikaslek eskola publikoan ikasiko dute, % 68,5ek A eta G eredueta eta % 31,5ek D eredueta; 15.178 ikasle, berriz, itunpekoan ariko dira (% 80,5 A eta G eredueta, eta % 19,5 D eredueta).

Bigarren Hezkuntzan, 16.222 ikaslek ikasiko dute eskola publikoan (% 68,5 A eta G eredueta eta % 31,5 D eredueta); itunpekoan, berriz, 10.857 izango dira (% 83,8 A eta G eredueta eta % 16,2 D eredueta).

Batxilergoan irakaskuntza publikoko 5.803 ikasle izango dira (% 66,8 A eta G eredueta eta % 33,2 D eredueta), eta 3.335, itunpekoan (% 93,4 A eta G eredueta, eta % 6,6 D eredueta).



Irakasle bat ikasleekin.

Departamentuko helburuei dagokienez, kontseilariak azpimarratu duenez, azpiegiturak sortzeko eta hobetzeko aurreikuspenekin jarraitzeaz gain, eskolatzeko irizpideak eta zonifikazioa berrikusi nahiz hobetu nahi dira, bai eta aurrematrikulako plantillak sortzeko prozesuak ere.

Ingelesa Ikasteko Programaren ebaluazioari dagokionez, Jose Luis Mendozak jakinarazi du iragan astean Parlamentuko Hezkuntza Batzordearen aurrean urri amaieran agertzeko eskaera bat bideratu zela urri amaieran; data horretan, aurreikusitako egutegiaren arabera, lortutako datuen azterketak amaituta izango dira, bai eta egingo diren jarduerak ere.

Bestalde, "eta Madrilen Gobernurik ez izateak dakarren eragozpena nabarmena bada ere eta, beraz, LOMCEren gaineko erabakiak etetea ere", Departamentuak Nafarroako hezkuntza-zentroetan zuzendaritza-taldeak berritzeko prozesuari ekingo dio, ahal duen neurrian; "izan ere, urtero aparteko izaerarekin taldeen iraunaldiak luzatzen ari diren kasu asko daude", kontseilariak azaldu duenez. Azken horrek gogora ekarri du 2017rako enpleguaren beste eskaintza publikoa bat aurreikusten dela, "eta horretarako, Gobernu zentralarekin berritze tasa negoziatu behar dela deitu dezakegun Bigarren Hezkuntzako plaza kopurua zenbatekoa den jakiteko". Departamentuak azpimarratu du aurten lehiaketara irten ez ziren Ikuskaritzako 14 plazak deitzeko asmoa duela.